Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

## GARAION NATURARTEA ELKARTEAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ozaetan,

### BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Amala Gabilondo Jauregi (72573449-P), Garaion Naturartea Elkartearen (IFZ: G-01441989) ordezkaria izanik, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

### AURREKARIAK

LEHENA.- Garaion Naturartea Elkartea irabazpidegabeko elkartea da, beraren lan eremua Barrundiako udalerria izanik. Estatutuetan bere egoitza Otatza auzoa z/g-an dauka.

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako Elkartearen helburuen artean honako hauek daude:

.- Araban, euskaraz sortzen diren ikuskizunentzako euren lana erakusteko espazioa eskaintzea.

.- Landa eremuko biztanleei kultur eskaintza aberatsa eskaintzea.

.- Garaionen sortzen diren lanak erakusteko espazioa eskaintzea.

.- Garaionera datozen ikusleekin harremana sendotu eta finkatzea.

.- Eskainiko diren ikuskizunei babes tekniko eta komunikatiboa eskaintzea.

.- Landa eremuan kultur jarduerak bizitzeko eskaintza aberatsa sortzea.

HIRUGARRENA.- Hortara, Elkarteak honako jarduerak bultzatu ditu:

.- Azken urteetan, 32 talde desberdinetik gora euren lanak sortzera joan dira. 100 sortzaile urtero. Antzerkia, dantza, zirkoa, magia, txotxongiloak, bertsolariak, ipuin-kontalariak, performanceak..., diziplina anitzak biltzen dira lanera, sortzera, esperimentatzera eta publikoarekin partekatzera.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 14921 ZXBP9-YRYW7-XZMWG C2171DB2074AD053CD839435ADD7FCED8002AC8) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalontegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 14921 ZXBP9-YRYW7-XZMWG C2171DB29074AD053CD83B435ADD7FCED8002AC8) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pos_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

*Ayuntamiento de BARRUNDIA*
(ÁLAVA)

*BARRUNDIAKO Udala*
(ARABA)

.- Landa eremuan kokatuta daude, Ozaetan, Arabako Lautadan eta inguruko herritarrak, haur, gazte, heldu eta aiton-amonak ere bertara etortzeko ohitura dute, artistak gertutik ezagutzera eta euren artean elkarrizketak egitera animatzen dituzte.

.- Guzti hau euskaraz sortu, ikuskizunak eskaini, eta euskaraz sormenari buruz hitzegiteko espazio bat izateko helburuarekin egiten dute.

.- Aurten Emakume Sortzaileak Plazara zikloa sortu dute, 26 emakume sortzaile lana, 13 emanaldi desberdinetan gozatzeko aukera izan dute. Arte mota desberdinak izan dituzte, antzerkia, kontalariak, musika, performanceak, soinu pasioak, jakuzzi-soinuduna, olerki-musika-hitzaldia edota Arabar gazteen rap kontzertua.

.- Bestalde Hemen eta Han ekimenak, migratuen ikuskizunak ekartzeko aukera ireki dute, beste herri batzuetan jaiotako Arabarren kultura euregandik ezagutzeko aukera dute eta oso esperientzia aberatsa da. Guztira lau ikuskizun antolatu dituzte Hemen eta Han programazioaren barruan.

.- Ikusleei ikuskizunetan gozatzeko aukera eskaintzeaz bat, ikuste eta sortzaileen artean gertuko harremana bultzatzen dute, ikuskizunean ondoren elkarrizketa bultzatzen dute, eta horrek sormen prozesua eta sortzaileen lana guztia hobetu ulertzeko balio izaten du. Sortzaileentzat ere oso aberatsa da euren lanaren feedbacka jasotzea. Eta gure inguruko biztanleak gero eta ohitura handiago dute elkarrizketa hauetan partehartzen.

.- Garaionen antolatu diren 36 ikuskizunetan Barrundiako Udalaren logoa jartzen dute eta udaleko web-gunean bere informazioa izaten saiatzen dira. Aldi Berean Barrundiako herri guztietan kartelekin iristen saiatzen dira.

LAUGARRENA.- Aurrenekoa garatzeko, Garaion Naturartea Elkartea bere jardueren zabaltze lanak burutzen ari da 2021 urtean.

Honenbestez, Barrundiako Udalak eta Garaion Naturartea Elkarteak jarraian adierazitako hitzarmena sinatzen dute,

**HITZARKINAK**

LEHENA.- Garaion Naturartea Elkarteak 2021eko urtean zehar bere jarduerak sendotzen ari da, horrela, irabazpidegabeko elkarteak ekintzak eta ikuskizunak egiten jarraitzen ditu.

BIGARRENA.- Helburu horiek lantzeko bide desberdinak zabaldu dituzte, hala nola:

.- Sortzaileekin adostutako "sortze bidean" ikuskizun eskaintza.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 14921 ZXBP9-YRYW7-XZMWG C2171DB29074AD053CD83B435ADD7FCED8002ACB) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1



.- Emakume Sortzaileak Plazara zikloa sortu.

.- Hemen ta Han ekimenak.

.- Ikusle eta sortzaileen artean gertuko harremana bultzatu.

*HIRUGARRENA.-* 2021ean ere 38 ikuskizunen eskaintza burutu du.

*LAUGARRENA.-* Barrundiako Udalak Garaion Naturartea Elkarteak aurrez aipatutako lan-ildoak gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 3.600,00 eurotako diru laguntza luzatuko du (2021eko Aurrekontu Orokorretako 334.481.015 partida), horretarako zuritutako gastuak honako hauek dira:

.- Berriketan txalaparta flamenko: 4.254,80 € (BEZ salbuetsita).

.- Kuku Bazar antzerki taldea: 450,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Garazi Lopez de Armentia Olabe: 1.028,50 € (BEZ barne).

.- Arteko Kultur elkartea: 1.200,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Azala S.L.: 1.452,00 (BEZ barne).

.- FOFO kultur Elkartea: 900,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Dorleta Kortazar Alkoz: 544,50 € (BEZ barne).

.- Olatz Gorrotxategi: 1.200,00 € (BEZ barne).

.- Maite Arroitajauregi Aranburu: 1.089,00 € (BEZ barne).

.- Lidia Pousa Gomez: 880,00 € (BEZ barne).

.- Idei-Krema Kultur Elkartea: 1.089,00 € (BEZ barne).

.- Tranpola antzerki taldea: 1.700,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Arroxbola Sormen Elkartea: 1.800,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea: 1.200,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Sleepwalk collective S.C.: 1.452,00 € (BEZ barne).

.- Bapatean arte eszenikoen elkartea: 600,00 € (BEZ salbuetsita).

.- Detritus Teatrus: 900,00 € (BEZ salbuetsita).

DOCUMENTO
_CONVENIO: Hitzarmena urtekoa 2021-GARAION NATURARTEA ELKARTEA

IDENTIFICADORES

OTROS DATOS
Código para validación: ZXBP9-YRYW7-XZMWG
Página 4 de 4

FIRMAS
El documento ha sido firmado por :
1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia Firmado 20/12/2021 10:05

ESTADO
FIRMADO
20/12/2021 10.05

*Ayuntamiento de* ***BARRUNDIA***
(ÁLAVA)

***BARRUNDIAKO*** *Udala*
(ARABA)

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ALKATEA

GARAION NATURARTEA ELKARTEA

Amaia Gabilondo Jauregi

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 14921 ZXBP9-YRYW7-XZMWG C2171DB20974AD053CD83B435ADD7FCED8002ACB) generado con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1